

UGARTE

HASIERA ORDUA: 19:10

BUKAERA ORDUA: 21:15

PARTE HARTZAILEAK:

47 pertsona (22 emakume, 25 gizon)

ORDEZKARI POLITIKOAK:

Natxo Urkixo (EHBILDU)

Ametz Meatza (EHBILDU)

Jon Ander Altube (EHBILDU)

TEKNIKARIAK

Almudena Fernandez (Arkitektoa)

Laura Castresana (Arkitekto teknikoa)

Joseba Solaun (Obren arduraduna)

Publikoaren artean

Isabel Bóveda Urioste (EH BILDU)

Maidier Basterra Ibarretxe (EAJ-PNV)

Nerea González (OMNIA)

Herritarra: batzarrak maizago egitea proposatu du, bi hilean behin. 4 gai planteatu ditu:

- Pintura faltan duten zebrabideak, ez dira ikusten.
- Negua datorrenez, argi gehiago ipintzea iradoki du. Isasin kale-argi batzuk goitik estalita daude, baina beste batzuek argia gorantz igortzen dute eta LED argiak ipintzea iradoki du beherantz igor dezaten.
- Aurreko batzarrean dagoeneko planteatu zuen Isasi norabide bakarrekoa edo bi norabidekoa izan behar dela, eta bikoa bada, aparkatutako autoak kendu behar direla.
- Seat aurreko zebrabidea oso altxatua dago.

Jonan: Isasiko bide-zirkulazioari dagokionez, beste batzar batzuetan gaia planteatu denean, kontrakoa eskatzen duten pertsonak agertzen dira, beraz, auzokideek ados jarri behar dute hasteko.

Ametz: zebrabideekin kontua da bide desberdinetatik iritsi zaigula eta berrikusten ari gara zeintzuk diren berriro pintatzeko plangintza egiten ari garela. Zebrabide altxatuei dagokienez, asfaltatze berriarekin 3 kenduko dira.

Laura: foro batean baino gehiagotan planteatu da zebrabide altxatuak kentzea (Iarrialdietako ibilgailuengatik batez ere) eta gutxika-gutxika ari gara. Seat aurrekoa ezin da kendu, baina beste 3 kenduko dira eta asfaltatzen goazen heinean, gehiago kenduko dira udalerritik.

Herritarra: Sagasti aldeko asfaltatzearengatik galdetu du, piezak solte baitaude.

Laura: azaldu duenez, garajeetarako sarbidea egiteke dago, arazoa da espaloiarenean aldean aparkatzen denez, ibilgailuak piezen gainetik igarotzen direla. Lerro horia jarri beharko litzateke aparkatzea debekatzeko, baina orduan aparkalekuak kenduko lirateke.

Herritarra: esan duenez errekan eta herrian arratoiak daude. Eskatu egin zen Ugarteko 15. eta 13. blokeetan aparkalekuak pintatzeko. Galdetu egin du harategiaren eta florenen arteko sarrera asfaltatuko ote den.

Laura: errepidea baino ez da asfaltatuko.

Herritar bera: parke adiskidekoien proiektu bat dagoenez, aipatu du plazako bankuak ez direla erosoak eta eskatu du bankuren bat ipintzeko aurrean, hitz egin ahal izateko. Asfaltatzera itzulita, galdetu egin du posible izango litzatekeen estoldak mugitzea.

Jonan: arratoiei dagokienez, batzar guztietan aipatzen da. Ezin dira erabat desagerrarazi, baina kontrola daitezke. Arratoiak daudela antzematen den lekura arratoiak kentzeko kontratatu den enpresa bidaltzen da. Udalerrian egon diren obra guztien ondorioz, arratoiak mugitu egin dira babesleku bila. Eta janari bila. Eskatzen du arratoiak ikusi diren eremuak eta egunak zehazteko, enpresarekin hitz egiteko. (herritarrek erantzun du errekan izan dela)

Laura: asfaltatzea egiten denean sarrera batzuk ere egiten saiatuko gara. Aparkalekuak pintatzearena zerrendan dago. Esan da bankuak ez direla oso erosoak eta ez dira beste eremu batzuetan ipiniko. Plaza egiten denean, aurreikusita dago banku multzoak ipintzea. Estolden kutxatillei dagokienez, ezin dira mugitu, hodiaren gainean daudelako. Egin daitekeena da aurreikusitako mailan jartzea, eta horixe egingo da.

Jonan: asfaltatzeetan arteriak lehenesten dira, alegia, Lamuzako bihurgunea, Lamuza, Ugarte, Goienuri, Seat. Seat lantegitik aurrera, errepidea Aldundiaren ardura da. Leziagan, Isasin eta Motxotekalen ere egingo dira. Muga lekuren batean jarri behar da, Udalaren gasturik handiena asfaltatzeetarako egiten dena da. Egoerarik okerrenean dauden lekuak egiten ari dira lehenago.

Herritarra: hainbat gai planteatzen ditu:

- Sagastitik igarotzen den erreka garbitzeko beharra.
- Ugarteko espaloiak txarto daude.
- Arza parkearen aurrean, igarotzeko, errepidera atera beharra dago, jendea basoerditan dagoelako.
- Eskaileretako zuhaitzak inaustea komenigarria litzateke.

Jonan: Udalak hondakinak ken ditzake, baina URA Agentzia eman behar dio baimena Udalari eta haiek esaten dute zer egin daitekeen. Errekan landaredia egon behar da, eta etorkizunean agian beste errekatxo batzuetan ere esku hartu ahalko da. Espaloiei dagokienez, Ugarten

espaloi asko daude txarto, baita herri osoan zehar ere. Enplegu programen bitartez saiatzen gara lan horiek egiten, baina gutxika-gutxika goaz, dena egiteko dirutza beharko litzatekeelako.

Herritarra: planteatu du inork erabiltzen ez duen padel pistan inbertitu beharrean, asfaltatzeetan inbertitzeko.

Jonan: erantzun du jende asko doala padelean jokatzera.

Herritarra: hainbat gai planteatu ditu:

- Zuberoa kalean, ibaiaren aldean, horma oso baxua da. Azaldu duenez, hara erori zen txakur bat erreskatatzera jaitsi behar izan zuen eta ia ezin izan zuen igo.
- Halaber esan du parkeko garbitze-lanak ez direla ondo egiten, Arrañora igotzeko azken zatia plastikoz lepo dagoela.
- Planteatu du estolden garbitzen-lanen maiztasunaren gaia, behin euri-jasa bota zuelako eta aparkalekua urez gainezka geratu zelako.
- Esan duenez, bere garaian ipinitako 4 zuhaitz ihartuta daude.
- Bere iritziz ez da frontoia estali behar.
- Uste du Leziaga asfaltatu beharrean, kaleetako sarrerak asfaltatzea hobe litzatekeela, trafikoa handiagoa dagoelako.

Jonan: errekaikoa ikusiko da konponbidea bilatzeko. Parkeko garbitze-lanei dagokienez, asko erabiltzen da, zikinkeria botatzen da eta ez da jasotzen. Agian, ez da hain sarri garbitzen ezinezkoa delako zoko guztietan sartzea. Pilotalekuari dagokionez, uste du merezi duela proiektu bat edo aurreproiektu bat egitea baloratzeko zer egin, kontuan hartuta berezia dela eta ondare eta arkitektura balioa duela; atarramendu handiagoa atera behar zaio frontoia aldatu barik. Behar baino gutxiago erabiltzen da, esaten da erdigunean pilotalekua egin behar dela, baina bere ustez hori egin aurretik ikusi behar da dugunarekin zer egin. Hori guztia pilotalekua erabilera anitzeko espazio publiko gisa ikusita. Gainera, Aldundiak badu diru bat konprometituta parkea birgaitzeko eta aprobeztatu behar da, parkea birgaitzea pilotalekua ukitu barik ez duelako zentzurik.

Herritarra: galdetu du zer gertatzen den Latorro eta Gardeako pilotalekuetan hangoak ere gutxiegi erabiltzen direlako.

Jonan: erantzun du Gardeakoa asko erabiltzen dela eta Lamuzakoak kokaleku hobea duela, beraz, asmoa dela erabilera anitzeko espazio publiko bihurtzea.

Herritarra: gogora ekarri du bere garaian bazegoela horretarako proiektu bat.

Jonan: berretsi du proiektua egon zela eta lehenago ere baloratu da. Seriotasunez aztertu nahi da, baina ikusten bada ez dela bideragarria, bada, ezer ez. Kiroldegia gainezka eginda dago eta kiroldegian egiten diren jarduera batzuk pilotalekuan egin litezke.

Amets: azaldu duenez, Zuberoan, parkearen bukaeran, eremu hori zabaltzea eta hobetzea aztertzen ari direla (zoladura eta jolasak).

Laura: estolda-zuloei dagokienez, esan du garbiketa-enpresak duela hori egiteko ardura. Eskatu ahala egiten da hori, beharren arabera, eta oso maiz egiten da, abisua eman bezain laster. Gogora ekarri du Udalera deitu besterik ez dagoela, bizkor hartzen dela esku.

Asfaltatzeari dagokionez, esan du kaleetako sarrerak ere egiten saiatzen direla, eta Leziagan egin dena izan dela 20 metroko zati bat asfaltatzea, apur bat narriatuta dagoelako eta hobe delako orain esku hartzea, kalte handiagoak gertatu aurretik.

Zuhaitzei dagokienez, espezieak ez du ondo funtzionatu, kendu egingo dira eta lorezaintza zerbitzua pentsatzen ari da zer jarri; plaza egiten denean egingo da.

Herritarra: esan duenez, kasernatxoaren aurreko harrizko etxearen balkoia oso egoera txarrean dago eta harriak jausten dira espalaira.

Jonan: esan du Udaleko norbait joango dela berrestera eta, hala bada, egikaritze agindu bat eman daitekeela. Bisita bat egingo da, txostena egingo da eta jabeekin harremanetan jarriko dira.

Herritarra: Isasi asfaltatuko da eta galdetu du norena den Ellakuri kalea, Seat lantegitik aurrera Aldundiarena delako. Uste du, gutxienez, koskak bete beharko liratekeela. Bere iritziz, ibaian betiko landareak beren horretan utzi beharko lirateke, baina orain dagoena ez. Ibilguaren erdian atera dena kendu beharko litzateke. Uste du pilotalekua estaltzea dela ideiarik onena, Herriaren eskolak eskertuko lukeela.

Herritarra: azaldu duenez, Kasinoaren atzetik Lamuzako etxeetara sartzeko bidean, zubitxo txarto dago lehenengo obrak egin zirenez geroztik zuloak geratu zirelako han. Han jendea labaindu izan da. Gainera, zubian bertan, eskailerek ez dute ertzik eta euria egiten duenean lokaztia sortzen da han. Ura bideratzea iradoki du, errebara joan daiteze, eta ertzak ipintzea. Bestalde, orgatxo, aulkitxo eta abarren sarbidea errazteko... Alde batean arrapatatxo bat ipintzea proposatzen du. Esan duenez, beste zubia berdina dago.

Jonan: gaia aipatu izan da jada, Parke Egunean. Egia da handik jende ugari igarotzen dela eta oso txarto dagoela, begiratu emango diote.

Herritarra: iradoki du, bide batez, eskaileretako argia begiratu dadila.

Amets: gogora ekarri du, besteak beste, parkean hobetuko dela argiteria.

Herritarra: azaldu duenez, lubetan, garajeen hasieran, igeltsua urteak daramatzala erortzen eta garajeen atzeko parteko estolda buxatzen ari dela. Ura sartzen da garajeetan. Udalari jakinarazi zitzaionean, esan zuten eguraldi onaren zain geratuko zirela eta azkenean ez da ezer egin. Halaber, bizpahiru sagarrondo lehortu dira, inguruan loreak landatzen zaizkielako.

Laura: harri-lubetari dagokionez, garajeen atzeko partean tutu bat ipini zen ura biltzeko, eta asmoa zen ur bidezko tratamendu bat egitea edo mazelan landaketa bat egitea lur hori biltzeko. Tutu bat sartu da baina ez du emaitza onik izan. Urtarrilean hasiko diren talde berriekin, tutu hori kenduko da; aldatu egingo da eta urak beste nonbaitera eramango dira.

Herritarra: betoia bota eta horma bat ipintzea planteatzen du.

Laura: azaldu duenez, ez da hain erraza, esku-hartze txikiak egiten dira ez delako espazioa desnaturalizatu nahi eta oso garesti aterako litzatekeelako. Sagarrondo ihartuei dagokienez, Sagasti aldean lorategien kontratu berriarekin egiten ari garena da eremu horretarako zuhaitz, landare eta lorategi egokiak zeintzuk diren aztertzen hastea. Gero, ondorioen arabera jokatuko dugu.

Herritarra: galdetu du ea beharrezkoa zen soropil naturala kentzea futbol zelaitik, horrek ekarri duen gastuarekin. Gogora ekarri du zelai ederra zegoen lekuan orain ortuak daudela.

Jonan: erantzun du kritika zilegi dela, baina inplikaturako pertsoneri (klubei) galdetu ondoren hartu zuen Udalak erabakia. Soropil naturaleko zelaia ederra zen, baina gutxi erabiltzen zen eta San Martin oso txarto dago, birgaitze-lanak behar ditu. Orain Ellakuri gehiago erabili ahalko da, etengabe.

Herritarra: elizara igotzeko bidean, sagatirako sarreran, ez da baetere ondo ikusten eta egunen batean istripu bat gertatuko da. Lerro horia margotzea iradoki du, jendeak aparkatu ez dezan. Halaber, planteatu du erreka zuhaitzak oso hazita daudela eta inausi egin behar direla, ikusteko trabak jartzen dituztelako eta ia-ia etxeetara iristen direlako.

Jonan: erantzun du begiratua emango zaiola.

Herritarra: esan du eskolen goiko aldean, ur andelaren ondoan, zuhaitzaren eguna ospatu izan dela. Eremu hori itxi da eta hara eramaten diren abereek zuhaitzak desgarrerarzi egin dituzte. Galdetu egin du nork eman duen baimena eta zer baldintzatan egin den itxitura. Sagastiko mazela azken aldiz garbitu zutenean, haritz eta gorosti mordoak moztu zen eta jakin nahi du zein izan zen irizpidea hori egiteko.

Jonan: zuhaitzei dagokienez, esan du argituko duela. Itxiturari dagokionez, uste du eremua bazkaleku gisa erabiltzeko eskubidea emango zela, baina espedienteak kontsulta daitekeela jakiteko.

Herritarra: kontraesana iruditzen zaio lehenik bolondresen lanaz basoberritzea eta gero abereak sartzea.

Herritarra: azaldu du sinadurak bildu direla Zuberoa kaleko patioan sartzeko arrapala ipini dezaten, urteak daramatzatela eta ez dela ezer egiten. Zuhaitzak inasuteari dagokionez, Lamuzatik Ugartera igotzean, liburutegiaren pareko ezpondan adarrak lurtean dituzten pagotzuk daude.

Almudena: arràpalari buruz azaldu du lur horiek lagatu egin behar zirela (herritarrak esan du egin, egin zela). Obra-lizentzia eman zenean, baimena eman zen eskailerak lurzoru publikoan eraikitzeko. Lurzoru horiek dagoeneko Udalarik laga zaizkion arren, eskailerak pribatuak dira oraindik, beraz, irisgarritasuna bermatzeko obrak auzokideek ordaindu behar dituzte. Auzokideari berretsi dio dagoeneko egin litekeela, proiektua aurkeztuko balute, lizentzia emango litzatekeela.

Herritarra: azaldu du uste duela errepidea ondo zegoela, bere ustez, kamioien joan etorriek hondatzen dute. Bere ustez, diru gehiago bideratu beharko litzateke jabeen erkidegoetara eta

euren beharretara eta gutxiago asfaltora. Pilotalekuari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaio instalazioetako erabilera optimizatzea, kezkatuta dago estaltzea atzeratzeko aukerak, eta ondorioz, beste obra handi bat egin ahal izateak. Iradoki du auzoetan garbiketaren eta hondakin bilketaren egutegiak ipini ahalko liratekeela; horrela, norberak izango luke herria garbi izateko ardura. (Euskaraz) Eskertu egin du batzarrak arratsaldean egitea eta gogora ekarri du duela urtebete eskatu zuela Herritarren Arreta Zerbitzua arratsaldean egotea, zerbitzu minimo bat, gutxienez.

Jonan: (euskaraz) azaldu du konpromisoa dagoela 2018tik aurrera arreta zerbitzua arratsaldean ere emateko. Hitzarmen berria jaso da astegun jakin batzuetako arratsaldeetan arreta zerbitzua irekitzea, izapide jakin batzuk egiteko. Gainera, aurreratu du HAZ asko aldatuko dela, izapide asko HAZtik egin ahalko direla, baita Internet bidez ere. (gaztelaniaz) Asfaltatzean eta lehentasun inguruko hausnarketaz, esan du ia erabat ados daudela, baina baliabideak mugatuak direla. Zaramei dagokionez, uste du atzeraka goazela, kontua ez dela hondakinak kudeatzea, baizik eta herritarren ardura falta, zarama edukiontzietan sartu behar dela. Hezkuntza arazoa da, kanpainak egon dira, informazioa dago, eta ikastetxeetan ere hezkuntza-kanpainak egiten dira.

Herritarra: adierazi du jendeak nahi duenean ateratzen dituela altzariak, ez dituztela altzariak uzteko ordutegiak errespetatzen.

Herritarrek: eskatu egin du Apaloetan hondakin organikoetarako edukiontzia ipintzeko.

Jonan: gogoratu egin du Kuadrillak kudetazen dituela hondakinak. Gutxika-gutxika, gero eta leku gehiagotan ipintzen ari dira.

Herritarra: azaldu du berak ekortzen duela bere etxe ondoko eremua Sagastin, ez delako garbitzen. Hainbat aldiz kexatu da. Goiko kalea ezkurrez beteta dago. Hondoko kalea ere ez dute ekortzen. Kale nagusia baino ez da garbitzen, Sagasti ez da garbitzen. Kexa ipini zenean bi astez garabitu zuten, baina besterik ez.

Jonan: esan du enpresarekin hitz egingo dutela.

Herritarra: Ugarteko tabernen terrazetara buruz dagoeneko hitz egin da, eta esan nahi du Zumalakarregi etorbideko 19.ean terrazek hainbeste inbaditzen dutela espaloia, ezen ezin baitira gurgildun aulkiak igaro.

Herritarra: martxotik aurrera, behin baino gehiagotan jarri dira harremanetan Udalarekin, baina ez dute erantzunik izan. Sagastiko mazela garbitu zenean, zati batzuk garbitu barik utzi ziren. Bando bat ipini zen herritarrek garbi zezaten eta ez da egin. Leku batean, lur azpiko putzu bat dago eta guzti. Galdetu egin du zergatik ez den eremu osoa objektiboki garbitu.

Ametz: erantzun du agian ez dela kanal bera erabili erantzuteko, baina hitz egin duela beste arlo batzuetako pertsona arduradunekin (obrakoak, mendietakoak...). Gogora ekarri du esan zitzaizela batzarraren ondoren beste bando bat ipiniko zela eremu publiko horietan oraindik gauzak dituztenek kendu ditzaten.

Herritarra: galdetu du putzua estaliko ote den.

Amets: esan du babestu beharko dela, baina ez estali.

(pertsona batek adierazi du pertsona batzuek kendu dituztela eta beste batzuek ez)

Amets: aurreko bandoaren kasuan egin zen bezala, errpikatu egingo da eta, neurriak hartuko dira gauzak kentzen ez dituztenen kontra. Halaber, aipatu du ez dela baimenik emango ortuak egiteko, auzokide batzuek eskatzen zuten arren, eta legetik at daudenak ere jakinarazpenean sartuko direla.

Jonan: arrazoia eman dio lurzoru publikoa dela esan duen herritarrari, eta azaldu du kontrolatu nahi dela jendeak lurzoru publikoa beretzat hartzea.

Herritarra: azaldu du Utzine ondoko eremua ez dagoela ondo, badagoela beherantz sartua dagoen kutxatila txiki bat. Gainera, esan du bankuak ez direla batere erosoak eta andreek euren kuxiank eraman behar dituztela.

Jonan: gogora ekarri du bankuen gaia dagoeneko jorratu dela.

Amets: azaldu egin du ez dela berriro erabiliko banku modelo hori eta plaza eraberritzeko proiektuan bestelako bankuak jarriko direla, multzokatuak, elkarrizketak bultzatzeko.

Herritarra: galdetu egin du biribilguneko etxearen prozesua zertan den.

Jonan: azaldu du desjabetze bat dela, Udalak diru kopuru bat ordainduko duela eraikinaren truke. Prozedura azken fasean dago, gutxi barru esango du desjabetzeen epaimahaiak zenbat ordaindu behar den eta ordaindu egingo da. Horrela, dena bukatutzat emango da, desadostasuna agertu eta auzitegietara jotzen ez badute behintzat.